## ATAUNGO UDALA

*Iragarkia*

Udal Batzarrak, 1996ko azaroaren 6an egindako bilera berezian, edonolako bikoteentzako Udal Erregistroa sortzeko hasierako erabakia hartu zuen. Baita hori arautuko duen Araudia ere.

Erabaki horren berri eman eta hogeita hamar egunez jendaurrean egon ondoren, ohar nahiz erreklamazioak aurkeztu ez direnez gero, 1997ko uztailaren 9ko behin-betiko onarpenarekin batera 3. artikulua indarrean dagoen ordenamendu juridikora egokitu delarik, hona hemen Araudiaren testua:

### ELKARTZE ZIBILEN ERREGISTROA

Gure antolamendu juridiko eta sozialaren funtsezko oinarriak nortasunaren garapenerako askatasuna eta legearen aurrean guztiok dugun berdintasuna izanik, behartuta daude botere publiko guztiak hiritarren eta horiek osatzen dituzten taldeen askatasun eta berdintasun horiek benetakoak eta eraginkorrak izan daitezen beharrezko diren baldintzak sustatzera, haien eragozle liratekeen oztopoak baztertzen dituztelarik.

Edozein gizon-emakumek du eskubidea, bere buruaren jabe legitimo gisako iharduеraz, elkarketa afektibo egonkor baten bidez bizitza-komunitate bat eratzeko, zeinek, seme-alabez osatu, nahiz ez, familia baten sorrera baitakar eta horri babes soziala, ekonomikoa eta juridikoa eman beharra daukate botere publikoek.

Ezkontza dugu elkartze afektibo egonkor horrek historian zehar hartu izan duen erakunde-forma, baina gaur egun elkarbizitza modu oso desberdinak ditugu, eta bikote ugari dira bere bizitza-komunitate iraunkorra ezkondu gabe eratzea, ezkondu gabe familia sortzea erabakitzen duten edo horretara behartuta dauden bikoteak ; ez dago, ordea, horien arteko harremanak giza-kalitate edo kalitate sozial gutxiagokotzat zertan jo, ez eta balio juridiko gutxiagokotzat guraso gisa semealabekiko dituzten betekizunak ere.

Bikote hauek, ezkontzarik gabeko elkarketa osatzen dutenak, eta bertatik sortzen diren familiek, ezkontza bidezko elkarketek eta beren familiek jasotzen duten babes sozial, ekonomiko eta juridiko berbera jaso beharko lukete; horrela bermatuko bait da, hain zuzen ere, begirunea eta gorago aipatu diren funtsezko oinarriak, hots, hiritar guztiek duten nortasunaren garapenerako eta berdintasunerako eskubidea.

Konstituzioaren araberako babes hau, oinarri berberak aintzat harturik, sexu berekoek osatutako elkarketa egonkor eta afektiboei ere eskaini behar zaie, berezko joera sexualak sexu bereko beste pertsona batekin bizitzera daramatzan pertsona horiek orain arte baztertzera eta kriminalizatzera bultzatu izan

## AYUNTAMIENTO DE ATAUN

*Anuncio*

El Ayuntamiento Pleno, en sesión extraordinaria celebrada el día 6 de noviembre de 1996, aprobó inicialmente la creación de un Registro Municipal de Uniones de Hecho, asi como su Reglamento regulador.

Sometido el expediente de referencia a información pública durante el plazo de treinta días sin que se haya presentado reclamación alguna, y adecuado el artículo 3.º al ordenamiento jurídico vigente con motivo de la aprobación definitiva, en sesión municipal de 9 de julio de 1997, se hace público el texto íntegro del mismo, que es como sigue:

### REGISTRO DE UNIONES CIVILES

El libre desarrollo de la personalidad y la igualdad ante la ley, que constituyen principios fundamentales de nuestro ordenamiento jurídico y social, demanda de todos los poderes públicos la promoción de las condiciones para que esa libertad e igualdad de los ciudadanos y ciudadanas y de los grupos en que se integran sean reales y efectivas, debiendo ser removidos los obstáculos que impidan o dificulten su plenitud.

Todo hombre y toda mujer, en el libre y legítimo ejercicio de su autonomía personal, tienen derecho a constituir, mediante una unión afectiva y estable, una comunidad de vida que, completada o no con hijos, de lugar a la creación de una familia, cuya protección social, económica y jurídica deben asegurar los poderes públicos.

El matrimonio es la forma institucionalizada en la que históricamente se ha manifestado esa unión afectiva y estable, pero hoy los modos de convivencia se expresan de manera muy plural y existen muchas parejas que optan, o se ven obligadas, por establecer su comunidad permanente de vida, es decir, por crear una familia al margen del matrimonio, sin que por ello deban estimarse de peor calidad humana y social sus relaciones personales o de menor entidad jurídica sus obligaciones paterno-materno filiales.

Estas parejas, que constituyen uniones no matrimoniales, y las familias que de ellas derivan deben gozar de la misma protección social, económica y jurídica que las uniones matrimoniales y las familias por ellas originadas, a fin de garantizar el respeto y la promoción de los antedichos principios fundamentales de libre desarrollo de la personalidad y de igualdad de todos los ciudadanos y ciudadanas.

Esta protección constitucional debe alcanzar, por los mismos fundamentos, a uniones estables y afectivas constituidas por parejas del mismo sexo, una vez superados los injustificables reparos morales que han venido marginando, e incluso criminalizando, a quienes por su opción sexual demandan de una vida en

duten zentzurik gabeko gaizki-ikusteak gainditu ondoren, gure antolamendu juridikoak egoera hori ezertarako aintzat hartu ez badu ere.

Esandakoarekin bat dator Europako Legebiltzarra eta, ondorioz, sexu-aukerak direla eta, bereizketarik ez egiteko eskatzen du eta sexu berdineko pertsonek osatutako bikoteak ezkontzarekin berdintzeko erregua egiten du (A3-0028/94).

Ezkontzaz kanpoko elkarketei, sexu berekoak nahiz desberdinekoak izan, legeek eta epaileek eman dieten erantzuna, ahula, zalantzaz betea, osotasunik gabekoa eta zatikakoa izan da eta, askotan, kontraesanez betea. Egoera honek, hainbat eta hainbat herritarri erabateko babes falta ekarri dio, bai eta injustizia itzelak ere, zibil, administrazio, fiskal, gizarte eta penal mailan.

Konstituzioak eskatzen duen berdintasunaren eta askatasunaren erantzule botere publiko guztiak dira, eta horrenbestez, dagozkien lege-xedapenak ematen ez diren bitartean, eta aplikazio analogikoaren edo gure garaiko errealitate sozialarekin bat datorren interpretazio juridikoaren kaltetan izan gabe (Kode Zibileko 3. eta 4. art.) bidezko dirudi, udal administrazioaren esparru mugatuan bada ere, berdintasuna bultzatu eta ezkontzaz besteko elkarketen bidez, nahiz elkarketa eratzen duten pertsonek sexu berdinekoak edo desberdinekoak izan, eratuta-ko familien babes sozial, ekonomiko eta juridikoa bermatuko duen baliabide juridikoa eskaintzea.

Horretarako, Araudi hau onartu dugu:

*Ataungo Udaleko Elkartze Zibilen Udal Erregistroaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko arauak.*

## I. ERREGISTROAREN AZALPENA ETA IZAERA

*1. Artikulua.*

Ataungo Udaleko Elkartze Zibilen Udal Erregistroak izaera administratiboa du, eta aipatutako arauak eta bere garapenean izango diren gainontzeko xedapenak izango dira araubide.

Bertan ezkontzaz besteko bi pertsonaren arteko elkarbizitza-elkarketen eraketak inskribatu ahal izango dira, aipatutako arauetan ezartzen diren baldintzei eta moduari jarraituz.

## II. ERREGISTROAN SARTZEKO AUKERA DUTEN HERRITARRAK

*2. Artikulua.*

Erregistroan inskribatzeko aukera izango dute, ezkontzaz besteko bi pertsonaren arteko elkarbizitza eratu duten bikoteek, baita biak sexu berekoak badira ere.

Ezkontzaz besteko elkarketako kideetako batek gutxienez, Ataungo Udalerrian erroldatua egon beharko du.

## III. INSKRIBAPENAREN ONDORIOAK

*3. Artikulua.*

Ataungo Udalak bere aginpideko gaietan onartu dituen edo onartuko dituen izaera administratiboa duten betebehar eta eskubide berdinak izango dituzte ezkontza bidezko elkartzeek nahiz Elkartze Zibilen Udal Erregistroan inskribatuta dauden ezkontzaz kanpoko elkarbizitzako elkarketak, bai sexu berdinekoak bai desberdinekoak.

común con otra persona del mismo sexo, situación absolutamente ignorada en nuestro ordenamiento jurídico.

En este sentido se han manifestado el Parlamento Europeo recomendado el fin de las discriminaciones por motivo de opción sexual y la equiparación a los matrimonios de las parejas conformadas por personas del mismo sexo (A3-0028/94).

La respuesta legal y judicial a esta realidad social de uniones no matrimoniales, sean o no del mismo sexo las personas que los conformen, es tímida, vacilante, incompleta, fragmentaria y en demasiadas ocasiones, contradictoria, y ello supone para muchos ciudadanos y ciudadanas situaciones de auténtico desamparo jurídico y de penosas injusticias en ámbitos tan distintos como el civil, el administrativo, el social o el penal.

La exigencia constitucional de igualdad y libertad está dirigida a todos los poderes públicos, y por ello, mientras no se promulguen las disposiciones legales pertinentes, y sin perjuicio de la aplicación analógica o de una interpretación judicial acorde a la realidad social de nuestro tiempo (arts. 3 y 4 del Código Civil), parece procedente ofrecer, aún en el reducido ámbito de la Administración Municipal, un instrumento jurídico que favorezca la igualdad y garantice la protección social, económica y jurídica de las familias constituidas mediante uniones no matrimoniales, sean o no del mismo sexo las personas que lo forman.

En su virtud se aprueba el presente Reglamento:

*Normas Reguladoras de la Organización y Funcionamiento del Registro Municipal de Uniones Civiles del Ayuntamiento de Ataun.*

## I. CONCEPTO Y CARACTER DEL REGISTRO

*Artículo 1.*

El Registro Municipal de Uniones Civiles del Ayuntamiento de Ataun, tiene carácter administrativo y se regirá por las presentes Normas Reguladoras y demás disposiciones que puedan dictarse en su desarrollo.

En dicho Registro podrán inscribirse las uniones no matrimoniales de convivencia, en la forma y con los requisitos que se establecen en las presentes Normas Reguladoras.

## II. CIUDADANOS QUE PUEDEN ACCEDER AL REGISTRO

*Artículo 2.*

Podrán instar su inscripción en el Registro todas aquellas parejas, sean o no del mismo sexo, que por su libre y pleno consentimiento hayan constituido una unión de convivencia no matrimonial.

Al menos uno de los miembros de la unión de convivencia no matrimonial, deberá estar empadronado en el municipio de Ataun.

## III. EFECTOS DE LA INSCRIPCION

*Artículo 3.*

En el Ayuntamiento de Ataun, todas las uniones no matrimoniales de convivencia, sean o no del mismo sexo las personas que las forman, inscritas en el Registro Municipal de Uniones Civiles, tendrán los mismos derechos y obligaciones de caracter administrativo, que dicho Ayuntamiento tenga reconocidos o reconozca para las uniones matrimoniales, en las cuestiones de su competencia.

## IV. AGERTZEA ETA INSKRIBATZEKO KONTUTAN HARTU BEHARREKO ZIRKUSTANTZIAK

*4. Artikulua.*

Bikote bakoitzaren lehenengo inskripzioa, bikotea osatzen duten bi kideak Erregistroaren ardura duen udal langilearen aurrean agertuz egin beharko da. Horrela beraien arteko ezkontzaz besteko elkarbizitza-elkarketa aitortzeko.

*5. Artikulua.*

Ondorengo kasu hauetan ezkontzaz besteko elkarbizitza-elkartea ez da inskribatuko.

a) Bietako bat adinez nagusia ez balitz eta ez balitz emantzipatu.

b) Bien artean odolkidetasuneko ahaidetasuna balego, edota adopzioz zuzenean ahaide edo odolez bigarren mailako ahaide albotikoak balira.

c) Bietako batek ezkontza gaitasun eza aitorturik balu.

d) Bietako batek, erregistroko arduradunak erraz somatzeko moduko gaitz psikikorik balu. Kasu honetan gaitasunari buruzko medikuaren txostena aurkez daiteke, hain zuzen ere ezkontzaz besteko elkarbizitza-elkarketa baimentzeko.

*6. Artikulua.*

Bikote bakoitzaren inskripzioko lehenengo idazpenean, beraien elkarketari buruzko gertaera eta gorabe-herak jaso daitezke. Era berean, elkarketa kideen arteko harreman pertsonalak nahiz ondareari buruzkoak arautzen dituzten kontratu eta hitzarmenak ere inskribatu ahal izango dira, hitzez hitzezko transkripzioz.

Aurreko idazatian jasotako edukinak bikotearen geroko agerpenetan inskribatzeko erabili ahal izango dira.

## IV. ELKARKETAREN AMAIERA EDOTA IRAUNGIPENA

*7. Artikulua.*

Elkartzearen amaiera edota iraungipenari dagozkion anotazioak, kideetako baten eskariz egitea nahikoa izango da.

## V. ERREGISTROAREN ERANTZUNKIZUNA

*8. Artikulua.*

Erregistroa Udaleko Idazkaritza Nagusiaren menpe egongo da.

## VI. ERREGISTROAREN GAUZATZEA: LIBURU NAGUSIA ETA XEHETASUN LIBURUA

*9. Artikulua.*

Erregistroa Liburu Nagusi baten bidez gauzatuko da eta aurreko artikuluetan aipatutako inskripzioak jasoko dira bertan. Liburuaren orriak mugikorrak izango dira eta bere zenbakia eta zigilua eramango dute. Liburua, zabaltze eta itxierari dagozkion eginbideen bidez hasi eta amaituko da.

## IV. COMPARECENCIA Y CIRCUNSTANCIAS A CONSIDERAR PARA LA INSCRIPCION

*Artículo 4.*

La primera inscripción de cada pareja se producirá, mediante comparecencia personal y conjunta de las dos personas ante el empleado municipal encargado del Registro, para declarar la existencia entre ellas de una unión de convivencia no matrimonial.

*Artículo 5.*

No procederá la inscripción de la unión de convivencia no matrimonial en los siguientes supuestos:

a) Si alguno de los comparecientes fuera menor de edad no emancipado.

b) Si los comparecientes fueran entre sí parientes por consanguinidad o adopción en línea recta o por consanguinidad en segundo grado colateral.

c) Si alguno de los comparecientes hubiera sido declarado incapaz.

d) Si alguno de los comparecientes estuviera afectado por deficiencias o anomalías psíquicas fácilmente apreciables por el responsable del Registro, pudiendo en este caso aportar dictamen médico sobre su aptitud para consentir en la constitución de una unión de convivencia no matrimonial.

*Artículo 6.*

En el primer asiento de inscripción de cada pareja, podrán hacerse constar cuantos hechos y circunstancias relativos a su unión manifiesten los comparecientes. También podrán inscribirse, mediante transcripción literal, los contratos y convenios reguladores de las relaciones personales y patrimoniales entre los miembros de la unión.

Los contenidos indicados en el párrafo anterior, podrán ser objeto de inscripción en ulteriores comparecencias conjuntas de la pareja.

## V. TERMINACION O EXTINCION DE LA UNION

*Artículo 7.*

Las anotaciones que se refieran a la terminación o extinción de la unión, podrán efectuarse a instancia de uno sólo de los miembros de la misma.

## VI. RESPONSABILIDAD DEL REGISTRO

*Artículo 8.*

El Registro estará a cargo de la Secretaría de la Corporación.

## VII. MATERIALIZACION DEL REGISTRO: LIBRO GENERAL Y LIBRO AUXILIAR

*Artículo 9.*

El Registro se materializará en un Libro General en el que se practicarán las inscripciones a que se refieren los artículos precedentes. El Libro estará formado por hojas móviles, foliadas y selladas, y se encabezará y terminará con las correspondientes diligencias de apertura y cierre.

*10. Artikulua.*

Bikote bakoitzaren lehenengo izen emateak oinarrizko inskripzio izaera izango du, horretaz gain gerora sor daitezkeen bestelako idazpenak liburu nagusian jasoko dira.

*11. Artikulua.*

Erregistroak ere xehetasun liburu bat izango du eta bertan, abizenen araberako ordenari jarraiki, bikoteei eragin diezaieketen xehetasunak liburu nagusiko zein orrialdetan jasotzen diren zehaztuko da.

## VII. ZIURTAGIRIEN IGORPENA ETA INTIMITATEAREN BABESA

*12. Artikulua.*

Erregistroan bere izena ematen duten pertsonen eta ahaideen intimitatea bermatzeko, ez da idazpenen edukiaren publizitaterik egingo. Elkartzearen kide batek, Epaiek edo Justizi Auzitegiaren eskariz izan ezik eta Erregistroko arduradunak luzatutako ziurtagirietan.

*13. Artikulua.*

Egiten diren inskripzioak eta eskatzen diren ziurtagiriak dohainik izango dira.

## AZKEN XEDAPENA

Arau hauek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara ematen den egunean sartuko dira indarrean. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian* ere argitaratu beharko da.

Ataun, 1997ko irailak 23.—Aitor Auzmendi Asurabarrena, Alkateak.

(565) (9143)

*Artículo 10.*

La primera inscripción de cada pareja tendrá el carácter de inscripción básica y al margen de la misma se anotará todo otro asiento que se produzca con posterioridad en el Libro General principal relativo a esa unión.

*Artículo 11.*

El Registro tendrá también un Libro Auxiliar ordenado por apellidos de los inscritos en el que se expresará el número de las páginas del Libro General en las que existan anotaciones que les afecten.

## VIII. EXPEDICION DE CERTIFICACIONES Y PROTECCION DE LA INTIMIDAD

*Artículo 12.*

Con el fin de garantizar la intimidad personal y familiar de los inscritos en el Registro, no se dará publicidad alguna al contenido de los asientos, salvo las certificaciones que expida el encargado del Registro, a instancia exclusivamente de cualquiera de los miembros de la unión interesada o de los Jueces y Tribunales de Justicia.

*Artículo 13.*

Tanto las inscripciones que se practiquen, como las certificaciones que se expidan, serán totalmente gratuitas.

## DISPOSICION FINAL

Las presentes Normas entrarán en vigor el mismo día de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, procediéndose también a su publicación en el *Boletín Oficial del País Vasco.*

Ataun, a 23 de setiembre de 1997.—El Alcalde, Aitor Auzmendi Asurabarrena.

(565) (9143)